Erref. kodea: LAF-220-192 [88]

Izenburua: Hainbatetik jasotako lanak:

Xarritton, Piarres: *Manechen arrengurak (eta beste zombaitenak ere)....*

MANECHEN ARRENGURAK.

(eta beste zombeitenak ere)

PARISEKO-CHORIAK.

Bildumik.

Aintzin-hitza -

Manechen arrenguak? Gurekin ere asko ba! Zer behar dugu manechen arrenguretarik, hobe luzke gureak konda bahitza. — Zaude emeki! Manech, ez da nor naki. Manech norbeit da. Gauza bat segura da: Nor da orhoit, nor zen Frantziako lehen ministrio diela bost urthe? Nik seguik ez dakit - Guy Mollet, ahantzia izanen delarik, nehor ez delarik orhoitzuko nor izan ere, Manech. Güre artean izanen da jainkoak nahi badu, et ziek, orduan ere, haren arrengura bertsuak izanen ditutzue — Hemengo labroariak, bizitzi luntiagoak dira, Karrunto kandi bateg, ezinez eta Canal de Suez deitzen den ur artean, eta Kanal horrek baino gehiago burua beroatzen dakote bekhar egitek.

Kaseta batzu eta anderechkila batzu, bizitzi inket ziren, "Prince Rainier", "Monaco" hiritko nagusia ondokorik gabe geldituko zen, eta ezin erranezko loria batek kantu zituen jakin zutelarik, "Rainier" - "Grace Kelly" - rekin espos atzen zela jakinik, Gisa berean Manech. en herritarrak inketdatzen basiak dira erranez: "Adina bolikek orai" "Doiakabe bizitzi dilizit duk" edo "Ez ditiuk, oraiko neskak konprenitzen, holako muthikoa, holako etchea, eta lotsa"

Behar duta eman zain herritarrek den

bizi mane ch Bordabeltz? Ez badut erraiten, "Herria"
-ren inaltaalek segun niz hatzemanen dutela, manech
iduri norbait, hura bezela bregi beltch erne hatzaretkin,
dena zaina, bulta dudarik franga elhekaria,
langilea eraliatia, eta goiz jeikitzalea, eta hatere
ezin bizia - Segun niz ikusi dugula, Donaphalenko
merkatuan, ortzinale bat arte han da, ogiz eta
belharrez kampo, bere igandetako mezan bezain
segur -

Eskualdunek, ez dira aise lotzen luma
bati bere penen erraiteko, eta are gutiago kaseta
bati erraiteko, denek jakin ditzaten, nahiago
dituzte bere ber jasan eta beren ezin bizia
bakarrik patitu, onhartu baino flakezia andana
batek elgarretkin indar handi bat egiten dutela -
Horra berazere chedea, ez jenderi kausitzea
norbaiten eginbeharrak kondatuz (nahiz bizilki jendek
plazer hartzen duten besten nahi gabez) bainan
ametsarekin, izanen dela izpiritu erne norbeit,
gogoetatzeko azkarki zer egin ditaken, Eskual
Herriko Manech - guzieri bere arrangura lanienen
kentzeko -

Beste egiteko guzietan bezela, ez da
hortako miakutasunik posible, gauza hirpi
ainitzetan chekatu behar da, arrangura horien
errora, bainan lehenik ezagutu behar dira -
Utz dezagun beraz, Manech mintzazerat, eta ahal
dutalarik, arteka bat ustez dautalarik arrapostua
emaiten dakot, bainan aduiago haren solasek
gogoratekarri gauza batzu, bi marraren artean
erraiten dutt - ditut -

ETCHEBERRIAZ - "Ba! Zer bura berova! Etcheberritxori
egin die hola, burutik dun, bena uste badut jende
horiek sosik bazutela holako obrari lotzeko -
Etchea, barrukiak, selaurreko bideak eta oro, to
"douchak" ere ba omen tie - haiha! ta! Segur nuk untsa
gosta dela hori - Ni ez nuk intelijenta, bena segur
nuk to "un million" etzutela aski - Ba! aise gehian
empleatu die, segur nuk to, hatere ezpiat eskolaik,
bena segur nuk milium bat eta erdi gosta zakatela -
Hori, Donaphalenko Kesan to hartu die - Uste -
duka, holako zorrak pian phatzia, ez tik
zentzurik behar - jende batzu harritzeko duk nola
ari diren, kreit konekin - Ni ik ez takiat, zombat -
etxan ez nuken hola bizinahi - Pahiago diat
miserian eta denak eniak -"

Arrapostia: Se egizak Manech, hik eta nik uste
trainu abilago tuk jende horiek - Orai zorretan
etchea berritzen diena, ez duk nor nahi, behin
ageri dik ez dela lotsa gerorari buruz eta bigane -
-rekorik joko gaitza dik, sasak txalira galtzen
ari dualakotz, sekulan bezela, undareko
gerlan bezela - komparazione, eman dezagun,
hik ez dakik, nik ere ez zombaten zorrak egin
duten etchebeni hortan; Eman dezagun mila dun
bat zor badutela, orai bost idi paren sarta
duk hori apepes - Beharba hemendik hamar
urtheren hunkor, bi idi paretan eginen dia
milima - Ikusten duka nola irazikor duten -
Hagoi eta bastuntherik ez diat, eta idia bei

milaliztan paria ikusi diat, ordian mentsa zela
erranen ziteen perran balu egun batez idiek
berrehun mila balioko zuztela. Ikusten dela
Manech, nun dutan irabazia orai zorra eginez-
manech-ek "Ba-'ba! Kanpenitzen diat zer erran
gaduken, bena etche bori sobera ttipia duk,
eztie sekulan nagatzen ahalko - Hik erraiten
duk bi idi narekin patuko dutela, bena eztiat
batere ikusten nola, eztie etche bortan sekulan
bi idi nare unkanen saltzeko, bobe likeye,
nare bat erostia -"

Ogi hazi saltzalea: "Izan duk ba gure etchen ere,
bena eztakoat fritsik hartu. Chaz Kambiatia diuk
hazia eta orai hiru urtthena badiuk - Haatik erran
datak hari ez hartuzik ere behar niela Kambiatu,
bi urtheren buruko ere hunetan. Etzian ez
sobera Kontent erran dakoat, nola zen hari hartu
hazia dena nahastekatia, eta arras gachoki
espilikatu dautak, hazirela hatzutan langile hatzu
ogi behechten ari zirenak eta kolpu bat sobera eaten
zutela, eta orduan trompatzen eta ogia nahastekatzen
eta bichtan dena ez duk deus ageri - Horrek erran dik
to, hamar urthe gabe zindikat, leher eginen
ziela, orai bezela emaiten badute ogi hazia -
Eman omen zie denetarat "Selectionné" ez direnak
eta lilia jalgitzian dena ikatza omen zitean -
Kartiereko ogia emaiten omen die bere zakietan
ezarrizik - Arimak zindikat horiek ere, ez diren
bestiak bezela Kommersant batzu -
(Ikhusa guzien arabera ez, laborariek berek Kantatzen
dituztenaz gain buruzagiak, edo beren labia dute)

Segida gero -

II

MANECHEN ARRENGURAK. (eta beste zombaitenak.)
Pariseko Choriak bildurik.

Bere izenaren gatik, Bordabeltzak, iduri du Kantuko Etchea; Etche ttipitto, aitzin churi bat, lau haitz ondoren erdian, chakur churi bat atthean (labri gorrasta da haatik) ithurriño bat aldean - (aldean ba, bainan beherachko - Manech-tzuzko barruka batekin dena unka kasik egun guziez.)

Mendian da Bordabeltza, eta lana idor, lurra idorrago oraino udan segurik, eta Manechek batzutan badu mutchil ttipi bat, edo bestenaz langile zombeit erabiltzen, hatzemain ditakelarik. Amak egiten dio barneko itzulitura, bainan ama ere chahartzen hasia eta etcheko andere gaztetik ez ageri, oraino segurik -

LANA NAGUSI. Pariseat ba! Pariseat! Gorsia
jin bada di segurik hor harat joanak direnak
oro itzul diten gibelerat, beharba orduan aiseago
ar baigintazke lanean, eta langiliak aiseago hatzeman.
Zer uste duk dela hik, lau ehun lia pagatu behar
langilia egunian eta ezin hatzeman prezio hortan ere-
to! Bizkarreneko semia hel du zatan zombeit aldiz
eta hura ere ez helduz gehiau, hiru edo lau et chetarat
galdia badilakuan, diok hemen bena uzten dula
lanian artzerat.

Bichtan dena Aljeria horrek makur handia
egiten dik, homedk muthiko bika hor harat joanik,
haritik beretik. Bena nik erraiten dear, ez duk
gehiago posible bizitzia, muthila nahi balin
bada, ehun mila segurik pagatu behar duk eta ono

beste kooperatiba kamar mila "securité sociale" eta antzu beste hameste, minhartzen dako, hola joanez laborariak peko-erekan egaziko die. Ehun eta berrogoitamar mila gasta dut mutikila, barrikat arno eta unde hat eta prezio hortan ere ezin hategeman.

Pariseat ba! Pariseat! Gasia jin bala di segurik, ber harat joanak direnak oro itzul diten gibelerat, gu ere aisechago ari biginditazke lanean.

Zortzi Urthez: bi milium Tiro laborantzari.

Manechek arrazoin du eta sobera baizik ez du arrazoin. 1946 etik, 1954 arte bi milium baino gutiago laborari dira Frantzian. Huna chifre chuchenak: 1946 ean baziren 7.392.000 jende laborantzan ari zirenak, 1954 ean aldiz etzinen gehiago 5.136.120 jende baizik laborantzan. Gisa berean diela 50 urthe, 1906 ean baziren 3.134.000 laborari etche, orai 1.920.880 baizik eztira. Milium bat gutiago.

Gisa berean so egin dezagun, Amikuzeko Herriberi, Oraare, ~~eta~~ beste ainitz Herri idun du, ez da ez pobreago, ez aberatsago; 50 urtheren barnean 100 familia galdu dira bere etcheñetik 1936 arte. Gero etik azken hamar urthe hotan hamar laborari etche galdu dira, familiako burua itzaldu delarik, hok ere etche ttiniak ziren. 130 etche eta familia geldi tzen dira orainO, 700 anima dauzkatenak eta nahiala ez sortzeak ttipitzen ari dira. Ehun eta zombeit Oraartar hetarik Parisen dira, beste kooperatiba kamar hat horgaindi Frantzia barnean edo Amerikatan.

Ez dinak antzatu nahi hobe dik leher Egitea.

"Zer uste duk, laborariak hola iraun dezakela, gauzak oro goitiari ditik salbu gureak. Eta negu huntako Karroiñak! Hogoi eta hamar milalian bazka erosi diat! Eta denak bardin gitunk gio hortan hemen gaindi. To, eztuk hemen Bixtezkuz baizik askI bazka zutenik. To! soizak. Gachitegik bezela ez baginu bazkarik erosi, gure behiak aspaldian gosiak hilen zitian.

Ni ez nuk eskolatia bena erranen deat gauza bat: Laborantza ez duk lehen zena. Orai eskuz bezenbat behar dik burus ari laborantzan. Erranen deat zendako. To edazak kolpa bat. Emuk besteat bena abilau, bena nik erranen deat: Oraiko mendia bizitzeko hunek, jarraikitzen denaren dako, bena ez dinak antzatu nahi hobe dik leher egitia, eta leher eginazko dakoyé. Horiholauk gio. Manech kechu da eta eskiaz mahaina joz dio: "To nik seme bat baneu, laborantzan ~~ez~~ bachelier bat egin nezakek."

Amikuzen bezela, Garaztan laborari batek bena ere ezan daut gauza, pentsa dut etzela bitoz golatik ari, bainan egia puska bandia bazen haren erranean. Arditropa bat badute, 150 buru, eta heiekin artzain bat badute.

Kankulan ari zen artzaina pagaturik eta pentzeak pagaturik (2 ektara 100'000 lia ~~bere~~ negu batentzat) berea jalgitzen othe zuen esnetik eta bildachtarik, Iduri zakon urtheak hartuz hat bestearekin baietz - Bainan Etchaldeaky Aitta semeak ari dira lanean muthil batekin - Ari zen muthila eta beste presak pagatu endaan zer geldi tzen othe zakoten, segurac ere irabazi garbiagoa jalgi lezaketela bere lurrak pentze utziz, udan belharra bil eta negu an artzaineri utz oraiko prezioetan -

Nolaz da hori beraz - Duela berrogei ta hamar urthe ezagutzen dutan etchalde batean lau gizon handi ha omen zinen eta bethi bizpahiru emazte - Orai ama semeak dira - Traktur hat badute, agi erhaite, lasta tinkatze, othe erhaitea, mekanikaz egiten dituzte, muthil hat badute ahaldetarik, eta halere doi doia bizi, batere urgulurik gabe - Bichtan dena lehen mestura eta esne janez bizi omen zinen, orai hori ez arski - Bestalde gobernuak eta gobernuek, atchikitzen dituzte laborarien gauza lehenak, prezio aras aphaletan, laborarien bildu sasarekin auzo erresumetan eaziz gasna, esne, lurra eta ogia, langilen ichil arazteko -

Beste arrazoinik ere badutake - Laboraria bera ez othe da lehendun ardura bere miseriaz, bere bizinahi duelakotz, auzoekin akomatu hainbat lehen ainitz gauzetan - Auzoak errango dut ez bakarrik, bere inguruko hiru etche, bainan bere herritan, bere ~~Kantonamendukoetan~~, ~~bere~~ auzo herritan, Eskualdun eta Kastoin, eta Frantzia guziko laborariak,

III MANECHEN. ARRENGURAK. (eta beste zombeitenak)

Pariseko Choriak Bildurik.

Oraiko neska gaztiak, hamarnetarik bederatziak.

Hemen, bihotzean pizu dautan gauzaz mintzo da manech, eta ez da arras ez nahiz, emazterik gabe - Behin gerla, presunerga, gero lana bunuz gainetik, zombeitek dioté sos eskasa eta mutil a eskasa, emaztei baten biltzeko, nik ez dakit batere zer dabilan eta zendako ez den oraino ezkondua -

"Ala zer uste duk, mutil a hori ez dela iragana, etchekoz jaunek ez etchetian alabarik nahi, orai nor nahi onhart lezakek amak ere, zuekin den ber, aski dik. Doterik izan dadin edo ez dadin bardin dakioke. Bichtan dena, Larramendiko amerikanoak diona, biak to on lukek, emaztia eta dotia - Zer uste duk, sos pochi bat ere eztela eder eta bazter zombeit ez dila arranjatzen -

Oraiko nesta gaztiak, hamarnetarik bederatziak, iduri die beldur dela, laborari etchiak izitzen dinztela, eta beren beldurra die, laborantzan muthil orde izanen dinela -

Futcho, hirietan dien zombeitekin, ez nikek trukatu nahi ene izaitia - Batere urunago joan gabe, Mayi, ene Pariseko arreba, gaichoa, egun guziez lanerat joan behar dik, eta bere senarharekin bizi duk, gambara batean - to ez dik sukalde hunen erdia handi emen, eta senare zaharrigarren estaian omen duk eta ainez iragan behar gaiti -

Eta gio Maurice, haren gizona gutaz jelastor dut:
Lui est ce qu'ils ont de la chance les paysans, ils ont des oufs sous la poule, les confits d'oie et de porc dans les grands pots, le vin dans les barriques, le blé au grenier, les legumes et les fruits au jardin - tu vois Mayi, ce n'est pas comme nous il faut tout acheter - Et puis mane ch s'il a envie de se reposer on d'aller au marché ce n'est pas comme nous, il n'est pas obligé de le faire en même temps que 4 millions de personnes, ~~son~~ et je ne parle pas de la chance de vivre au grand air toute ~~la~~ l'année -

Gaizo tetelia ba! A la uste du gauza horiek berak jinak diela? Behare guke momentu onik inagaiten dinik, eta badinik askinagusi lana, hor dut nagusi -"

Ez da dudarik, neska gazteak gainitz, ez denak beharre, liburutxik daudela hirian ezkontzeaz, eta laborantzaz mintzo den ber igitzen bezela direla - Zombeit ek hiria jastatuz gerog, ez dakite nola bizitko dinen kanpañan, sehi bada sehi, hilabete saria chuchen heldu da eta ez bethi sehi egonen direla ere iduri, ezkontza ~~ot~~ bat behar bada egun batez? nork daki?

Hain ametsegileak ez direnek, bere meneko ofizio bat lortzen dira: eri ~~ant~~ artzaile, segretario, ~~eta~~ edo mekanikaz izkiriatzaile, Dendari, eta bertze Andere ofizio zombeiti - Bainan ofizio horietan dinen andereak kausitzen dira dotzenan hamahiru eta pagamendutzat ardiesten dute, hirian ernaiten dena: "un salaire de misere"

Laborariak: lehen mancha galdu -

Orai hortan gira laborariak lehen mancha galdu du, neskatoen ondotik mutthikoek ere laborantzari ihes egin nahi dute: hortaz badakit zerbait, beren hirirat joiateko ideiaz parte egin dautatenik asko ezagutzen dut - Bainan laborantza ez da galdua, mundutko lehen ofizioa, mundu an beharrena den ofizioa ez ditake gal - Bainan galduko dira, laborari ttipi eta jeinu entrealeko guziak -

Errotik kambiatuko da laborantza, bizikiarthe gabe, hemendik harat ez dira abitak, jeinuziak eta hirikatzaleak: baizik bizikoz, bainan bizikoz dira ederki - Et sempluz bat ederra hatzeman dut, Oraare Herrian, Barta deithu, Kartier ilhun batean, denetarik urthun, iduriz leku ~~t~~richtera bizitzeko eta sos irabazteko, elektrikarik ere ez dute, bainan jende argitiak kausi ditazke horren gatik. ~~Han~~ Laborari etche propi batean, otoi 203 herri batean dabiltza eta traktur bat ere erosi berri dute - Han bi alaba badira, Parisen sehi egonak, eta diote oraiko lanak sehigoak baino gehiago ernaiten dakotela, familian bizitz - Zer ari diren ernaitea errech da, egitea berek dakite zer izendi eta arrenguak izan dituzten errensitu arte - Oilasko hazten ari dira, arrastopa handiak hazten dituzte eta astean lau edo bost ehun oilasko despeitzen dituzte

Kamiuner - Holako etche batek merechi luke luzaz bisitatzea eta chehetki kondu emaitea - Alainan baditugute arreltzen sor arazteko behar diren tresnak, chitoen haztako behar diren berorgailuak ikatzean eta behar diren guziak araberan -

Beso-sobera, buru eskas -

Mendeari ez dikake eskapa - Industriaren mendian gira eta kuni behar dute laborariek ere jarri - Langileak eskas izan ondoan, laborantza langile sobera ahal kin izanen otthe da, mekanikak eta sasidunak kunari, zinez lotzen direlarik ? Lur eta etche tipi guziak juntatu beharko direa tresnak balia ahal diten profiturekin.

Gobernuak badu plan bat preparatua (bai) tzen dinen bost urthe hotan, 580.000 laborari behar direla hirietako ofizioetarat ekarri -

Bainan hirietako leku eskasa, etche eskasa, ez ditu horrek arrangjatuko. Bestalde ez litzake miseriarekin jalgi behar orai dituen hoberenak eta ernenak, laborantzatik.

Suisak, Eskual Herriari eite handia (n) hadu, mendizu eta lur tipiak etaidote etche tipiak ~~gehiago~~ emaiten dueta handiak baino gehiago.

Danemark eta Holland de, herrialdetan dauka-te kanar ekarra kunetako etchea dela izari hoberenekoa Konduak eginak izandira 1938.ean, erakutsi dutenak, Hollandesek lau ekarra kunetan, (4) ekar azten zutela Amerikanoek bernogei (40) ekharetan bezembat.

Eztua beraz etxeko - Etche tipiek gaina jalgaitza tzea ez dela, kunetako fruitu etan ~~Hollandesek~~ laborariek eskasian ahalu behar dutelako. Gaztek izan dezakete eskola

IV Buru

MANECHEN/ARRENGURAK (eta beste zombeitenak) Pariseko choriak Bildurik.

Betroinen etsemplu ederra -

Ez dezagun uste izan, gukaun girela Eskual Herrian bakarrik ez aisa bizi girenak. Frantzia barnean gu iduriak badira, mundu guzian gu iduriak badira, eta ainitzez eta ainitzez ere gibelaga direnak, izenik gabeko miseria batean, bainan bakotchak bere mina bazirik ez du sendatzen.

Bizikidetzan joan gabe, Hor ditugu Betroinak, areya batzuk bezela, Eskual Duneri eite dutenak. 18.000 Betroin inthe guziez badoatzi hemitik Kampo, Kasik denak, jende gutienik jasan dezaken lekurat: Pariserat.

Parise Erle Kofaina baino hetheago da, jendek atherbe ichpilhat zernahi pagatzen dute (mihamek ere badakit zerbeit, eta badira gaizkiago orainoo, Parisen hereau ez aloyatuz, 30 edo 40 km-a egiten ditugtenak, egun guziez lanerat joiteko eta handik jiteko - Zortzi oren lan baizik ez direla egiten, bainan hiru edo lau oren bidean behar hadira nun da pausna.)

Kondu egile batzuek daukate berehun mila (200.000) betroin badirela Parisen eta ~~Bost~~ ehun mila (500.000) Parise inguruko departamendueta-n.

Gizon bati adola bururat joan zakotarik lanjer handian da, leher egiteko biniskuan da eta Frantzia hortaratua dugu - Hagari inthez 600.000 jende gehiago bildu ditu Pariserk - Gas Elektrika, errenedio gehientsuak han eginak dira,

eta Frantzia desertu bat bilhakatzen ariida.
Frantziak odola kurrat bildua du eta membroak odol gabetuak.

Lehen lehenik Bretainak ohartu dira eta lanari lothu, bere indar eta nahi guziarekin, bere eskual dearen alderasteko, eta bere herritarreri bizi-bide berrien emateko - Hola sortu da C.E.L.I.B. Comité d'etudes et de liaisons des Interets Bretons. C.E.L.I.B, horrek plan bat ageriu du, ~~gob~~ gobernuag onhartua izan dena eta dutik emana izanen dena : plan Breton deitzen dute -

Huna zertsa eginga duten :

1º Bretainia, lehorari eta arraintzale lekua da, hiru aldetarik itsasoz inguratua da, eta berotasun gocho bat badu elakotz urthe guzian, baratzekariak gogotik ari dira - Hortakotz lehen lana kurrari eta itsasoari inahala jalgi, langileriaren bizi moldea aldarasteko : arrain, kalala, mailleria, arroltze, esnekeria eta legumak - Lurrak gisatatuko dituzte, etche ttipiegiak elgarretaratuko eta sobera begoin eta muga delakotz elgarretan, hoik planatuko dituzte, mekanikan aise erabiltzea gatik.

2º Lantegien moldea berrituko eta uzina berriak lan datuko - Urthe guziez 10 edo 12 milla langile emplegu berri izanen dira - Uzina berriak ainitz langile daukaten lanetarik izanen dira : briket, ur-berotzeko, nerayuko tresna eta bestalde laborariek eta arraintzariek behar dituzten tresneriak : bono, mekanikeria, esneteria eta beste - Orai arte diren uzinak ~~uzinak~~ berrituak eta azkartuak izanen dira : Kontserbu, zapateria, papereria, bacheria, larru pikatu eta bertze -

Batere ez dituzte kondatzen, garagiista eta beste tresna arranjatzale behar diren andana handiak, ¿Izanen dute zer egin.

3º Itsasoko lanak 18'000 arrantzari bahiatzen ditu, Frantziako hirunetarik bat eta kontserbu egilek aldiz 14'000 langile behar dituzte - Horien tresneria ere berritua izanen da lan berean gehiago bil dezaten - Hala nola Donibane Lohizunetko moldean Atun arraintzan ariko dira, arrain bizidun, eta itsasuntzi handiagoak izanen dituzte Afrika leitorretarat heltzeko Donibandarrak bezela -

Artetik erranen dut, lehen Eskualdunak balenen arraintzan eraikutsi zuten Angles eta Hollandesen, eta bizitik dembora gabe Hok, Eskualdunen nausitu - Orai ere Donibandarrek etsemplutzat baliatu ondoan ez lukete izan behar besten petzero -

Ametsbat iduri -

Nork erranen du Eskualdunen, bere etchean ezin bizia bada, beren falta dutela - Zombat dira eskualdunetan dakitenak zer den eta zendako den : Comité de l'Expansion Economique du Bassin de l'Adour ? Zombatek dakite nondik bilzar hontan harne ? Zombatek dakite zaion hoiek zer duten eginik eta eginga ? Zombatek dakite zer ametsa den lothuak diren

eta horrek jende guziak onthu behar ditu.
Egun guzier kaseta irakurtzen dutenek badakite zer den, etzer ari Comité d'Expansion Economique hori; bainan hestek zer dakite? Askiargituak direa bere bihurko ogia nundik jalgi behar ko duten - Herria kaseta hunek berak, Eskuara salbatu nahi du eta obra handia egiten du horrako, bainan askiagphatzen dia nundik eta nola eskualdunek bizi behar duten bihar -
Askikompenitzen dugula, eta Eskualtzalek lehenik behar lukete kompenitu: Nork mintzatuko du Eskuara: Eskualdunik ez bada -
Hortako chede lehena eta azkarrena behar da, hori gabe bertzeak ez baitira jeusare:
Eskuara salbatzeko, salbatu lehenik Eskualduna

BURUA.

PARISEKO. CHORIA.

1

HAZPARNE-ko

Martin LARRALDE(I782-I82I)
Bernard LARRALDE(I77I-I853)
J.Baytiste LARRALDE(I804-I870)

HIRU PERTSULARI BORDAXURI-tarrak.

Hazparneko aldean egundaino sortu den kantu ezagutuenaren inguruan idatzi duen ikerlana bururatzean,Jean Haritschelhar-ek zion honelatsu:"Martin Larralde - Bordaxuri,Plumaineko premuaz" bestalde,beste "Larralde Bordaxuri" bat izan dela , XIX.gizaldiko lehen menderdian,kantu ontzaile hauteren fama zuena,bodut uste.Halako aldi batez mintzatuko natzaizue,Bernard Larralde Bordaxuri,Martin Larralde Bordaxuri-ren osaba horretaz"(HARITSCHELHAR,Jean,Martin Larralde Bordachuri,le poète-galérien,Bayonne,I963,orr.29.).

Haritschelhar jauna ez zaiku berriz,nik dakidala,alor bererat itzuli,bainan haren bidetik aintzina joanez,nihaur ohartu naiz Hazparneko Larralde Bordaxuritar pertsulariak izan direla,ez bakarrik biga;bainan ere hiru:I. Martin Larralde Bordaxuri Plumaineko premu aipatua. - 2. Bernard Larralde Bordaxuri,Martinen osaba. - J.Baptiste Larralde Bordaxuri,Bernard-en semea,Donibane Lohitzuneko Dr Larralde mediku famatua.

Batere urrunago ibili gabe,hor dugu gure erranaren berme,Hiribarren Azkaidar idazlearen lekukotasuna.Honek ezen argitaratu zuen I853 an Eskaldunak pertsu liburua,Baionan,nihongo xehetasunak dauzkana orduko bizilagunez eta geitakariez. Hazparneko herriaz ere eta herritarrez mintzo da hain zuzen,4. kapituluan,"Merkatu dun herriak"aipatzean:

"Hazparnen egiten da merkatu handia,
"Erran ere ditake Lapurdin nausia;
"Nondik nahi jotzen du haziendak haret;
"Badoake beharrsa metar hautatzerat.....".

Eta hazpandarren sineste ta bertute paregabeak(?) goretsirik honela:

"Sinestean herririk ez da hobeago,
"Jende guzia kasik ongiari dago.....",

Hiribarren-ek aipu ditu orduko hazpandar ezagutuenak:Garat-Pikasarri eta aita Deyheralde,misionesteiko buruzagiak,Hirigoyen Eihartzeko anaia aberatsak,bai eta ere sorterritik urrun Daguerre eta Zabaloa "espainol eginak"(sic).Hona orai mirikuak:

"Mirikuak badire aipamen dutenak,
"Mihiz bezala kaskoz ongi berreginak:
"Harriague,Durruty,zuen omen ona
"Ingurutan izanen menden laudamena.
"Donibanen Larralde hainitz da prezatzen...."

Hona beraz I853 an,Donibanen jarria zegoen Larralde medikua,hazpandar ekarria.

Gehiago oraino,hazpandar ezagunen lerroan jartzearekin gero,Bordaxuri pertsularia, Hiribarren-ek honela dio:

"Aipatua izan da kantaz Bordaxuri,
"Basakien ematen gatza pikoeri.
"Niriku den semeak itzitzen omen du;
"Herriak prezaturen deus agertzen badu."

Bordaxuri-tarrek "Larralde" sinatzen zutela ohartuz geroz,ikusten dugu Donibaneko Larralde medikua,Bordaxuri seme zela beraz,alde batetik,eta berak ere ordukotz pertsulari falta bazaukala,bestetik.

Plumaineko premu Bordaxuritarrik,egia erran,aipatzen ere ez digu gure Hiribarren-ek,bainan hazpandar "ohoragarriez" mintzo da bakarrik,ez galerianoez eta bestalde,1853 kotz agaldian zendua zen "zorigaitzeko premu" Plumaienekoa:estakuru ederra,bakean usteko!

Dena dela,hor dauzkagu gure hiru Bordaxuri-tar pertsulari hazpandarrak. Paper zahar zenbait ikertu ondoan,hiruak nahi genituzke zerbait aipatu.

I. - MARTIN LARRALDE BORDAXURI(1782-1821)

Martin Larralde Bordaxuriz ez dugu ainitz erraite beharrik,Jean Haritschelhar-ek bildu baiti ditu eta argitaretu,hartaz eta haren obraz bil zitezkeen xehetasunak oro:Badakigu beraz Hazparne Plumaienean sortu zela 1782 ko urtarrilaren 7 an, Guillaume Larralde Bordaxuri eta Marie Ithurbido Plumai-en semea,Martin;Peña Arbelegiko osaba Martin eta Urkurai Ikatzurietako Mari izan zituela bataioan aitabitzi - amabitxiak.Ama galdu ondoan zen Martin bere aitarekin samurtu,Plumaieneko etxe-partearen gainetik.1815 eko Johdoni Joanetan zuen tiroz kolpatu Jean Ospital,Peña Kaselarren-bordako etxetiarra,Plumaieneko nagusiaren kondu belarretan ari zena.Uztailaren 4 ean preso hartu zuten Hazparneko jandarmek eta Baionara ereman.Paueko "asisetan Azaroaren 28 an,urte berean agertu zen Martin Larralde Bordaxuri eta sekulako galeretara kondenatua izan,"deloko Ospital tiroz hil nahi izan duelakotz".Ondoko urtean, Agen-eko lagun zenbaitekin,Rochefort-eko galeretan sartzen da,Abuztuaren 3 an,gure 35 urteko gizon gaztea.Han berean hil beharra zen bost urteren buruan 1821 eko Abendoaren 19 an.

Galeretan ordea "leher egin" aintzin,Martin Larralde Bordaxuri-k,Plumaieneko premuk eman zituen bere pertsu lazgarriak:

".....Paubeko hirian,
"Burdinaz kargaturik,oi,presundegian,
"Bai eta kopiatu denbora berian,
"Orok kanta ditzaten Hazparne herrian".

Zuzen zabilan hazpandar pertsularia ezen mendeurren baten buruan,XX. gizal

di honen hastapenean,Pierre Broussain Hazparneko auzapezaren beraren ahotik biltzen zuen Azkue jakintsunak haren gurrasiaren oihartzun samina(AZKUE,R.M.de,Euskalerriaren Yakintza,IV,252.orr.);bainan Hazparnetik urrun ere,oihartzun bera entzun zezakeen bai Azkuek berak,Nafarroako Lesakan edo Imotzen(AZKUE,R.M.de,Cancionero Popular Vasco,470. eta 516-517. orr.),bai Jose Mendiague Hazparneko guarda seme pertsulariak,Buenos-Aires-eko ostatu zokoetan(MENDIAGUE,Jose,Euskaldun Kantuak, Buenos-Aires,1900,76-77. orr.). Halako aipamena izan zuen Martin Larralde Bordaxuri-ren kantuak euskaldun guzien artean! Halako lekua hartu euskal literaturaren alorrean!

2. - BERNARD LARRALDE BORDAXURI(1771-1853)

Aita,Peña Bordaxuriko semea,zuelakotz,Martin Larralde,Plumaieneko premuak, "Bordaxuritar arrazako" zaukan bere burua.Ez zen bizkitartean bere Bordaxuriko semea.Hona orai beste pertsulari bi,Hazparne Peñako Bordaxurian bereen sortuak:Bernard Larralde Bordaxuri eta honen semea,Battitta Larralde Bordaxuri.

Hazparneko herriko-etxetik eta Baionako herriaren liburutegitik bildu ditugu hemengo berri larrienak:XVII,XVIII. gizaldietako bataio,ezkontza,heriotze agerialk ez dira beti osorik begiratu Hazparnen eta,egia erran,ez dugu Bernard Larralde Bordaxuri-ko semearen bataio agerirrik aurkitu Hazparneko paperetan 1771-1772. urteetan.Orduantsu zitekeen bada sortua gure gizona ondoko konduen arabera.Esen XIX. gizaldiko liburuei esker, ongi jarraikitzen gatzaizkio Bernardabarralde Bordaxuriri heriotzeraino.Hiru zentsu liburu baditugu alabainan Hazparneko herriko-etxean, XIX. gizaldikoak:1804,1809 eta 1831 eginak.

1804 an,Peña Bordaxurian bizi dira:

2944	HIRIART Dominique	62	urte	laboraria
2945	LARRALDE Bernard	32	"	oihalkina
2946	LARRALDE Marie	30	"	
2947	HIRIART Jeanne	73	"	
2948	DOYHENARD Etiennette	II	"	

1809 an,etxe berean,bi eskualde jarririk,daude:

HIRIART Jeanne	80	urte	mutxurdina
HIRIART Dominika	74	"	alarguntsa
LARRAN Marie	35	"	ezkongaia
LARRALDE Bernard	37	"	merkatari
ETCHEVERRY Marie	26	"	
LARRALDE Marie	9	"	
LARRALDE Baptiste	5	"	
LARRALDE Gratianne	4	"	
LARRALDE Marie	2	"	

Hortik beretik nabari da,I804-I809 arte horretan zerbait aldaketa handi gertatu dela Bordaxuriah.Jean Haritschelhar-ek ezagutarazten digun Gilen Bordaxuri eta Marie Plumaienen ezkontza paperetik(HARITSCHELHAR,Jean,op.cit.,3.orr.) badakigu haur-hauretik hurasoak galdu zituela,Bernat,Bordaxuri-ko seme gazteenak.Geroztik,eta beste haurrideak oro etxetik joan ondoan,Bernat Larralde bakarrik geldítu zen,bere arreba Marie Larralde-kin,Hiriart sendiaren ondean,"duranguier" edo oihalkin eta ezkongai, 32 urtetan.

Bainan I804 etik laster,Bernat Larralde ezkondu zitekeen,Marie Etcheverry-rekin.Honek,gure iduriko,neska bat baitzuen,gazterik ukana,Bernatek ama-alabak hartu zituen eta laster jin zitzaizten Battitta,lehen semea.Hauen ororen paperik ez dugu aurkitu,zoritgaitzez.Graxianaren eta Mari tipiaren bataio ageriak ditugu bakarrik eskuratu Hazparneko herriko-etxean:I805 ean Graxianarena eta I807 an Mari-rena.I809 ko zentsu liburuan hobere ikusten dugu Bordaxuri-ko Bernat Larralde eta Marie Etcheverry-ren familia,bere kondu ongi finkatua:Hiriart-arrak beren eskualde ezarririk eta Bernat,etxeko nagusia,ofizioz aldaturik,oihalkin-en orde,merkatari dugunaz gain.

Aldaketa handiagoa oraino bizkitartean ikusten dugu I83I ko zentsu liburuan. Hor gora zinez ohartzen Bernat Bordaxuri hau zitekeela Plumaieneko iloba Martin galerlosanoaren "osaba burjes diru fornitzalea",Jean Haritschelhar-ek sumatu zuen bezala(HARITSCHELHAR,Jean,op.cit.,29.orr.).I809-I83I artean alabainan Bordaxuri-ko etxetxarretik Eiheraberriko etxe ospetsurat aldatzen da Bernat Bordaxuri bere familiarekin;Peñako basa-bazterretik,Hazparneko karrika erdirat hots.Hona beraz I83I an Bordaxurian bizi ziren IO lagunak:

LARRALDE Marie	-	-	
ETCHEVERRY Jean	45	urte	ehulea
ETCHEVERRY Gracieuse	3	"	
AUGUSTIN Marie	30	"	
ETCHEGARAY Marie	200	"	
HERRERAN Marie	34	"	
SANGLA J.Baptiste	35	"	oihalkina
SANGLA Baptiste	3	"	
SANGLA Marie	I	"	
ETCHELOUS Catherine	42	"	

Beste zehaztasunik gabe,Marie Larralde izen deiturekin hor dagoen andre hori bera dugu beraz I83I an Bordaxurian bizi den Larralde-tiar bakarra.Hori bera dukegu ordea,I85I ko Apirilaren 20 ean,Hasparnen hiltzen dena,97 urte zituela.Jean Vergez delako baten alarguna omen zen,bainan ez dugu jakinen Bernat Larralde-n arreba,ala izeba,ala nor ote zen.Dena dela,Bordaxuri-ko egoiliar guziak bestenaz kanpotik etorriak dire,iduriz,Eiheraberrirat joana den Bordaxuri-ko nagusi handiaren kondu

hor sartuak nik uste.

"Hiherabarria"-ren izena bera galdua dugu gaur Hasparreko"Jean Lissar" karikatik,bainan 1831- an hor zegoen ospetsu,"Turiandeia"-ren (gaurko "Guyenne & Gascogne") eta "Purrutenia"-ren(gaurko "Errimoztea") ondoan.Salerospen handia zerabilan benala etxeko nagusiak,bere ogi bihi merkatuarekin,"blatier" - nioten frantsesez - familiaz bestalde,zehi alde gaitza bazeukan hor bilduriko.Hona hada bizilagun guzien izenak:

	LARRALDE Bernard	59	urte	"blatier"
	ETCHEVERRY Marie	50	"	
	LARRALDE Gracieuse	25	"	
	LARRALDE Jeanne Marie	23	"	
	LARRALDE Saint-Martin	13	"	
zehiak	ARGUIBAT Marie	17	"	
	LAMBERT Elaine	7	"	
	DURRUTY Marie	54	"	
	VILLENEUVE J.Baptiste	27	"	"scribe"
	VILLENEUVE Marie	26	"	
	VILLENEUVE Laurence	23	"	
	VILLENEUVE Claire	21	"	
	PRUEL Philippe	59	"	tratulant

"Izkribau" eta zehick bazter utzi-ta Bernat Larralde Bordazuri-ren familiari begiratuz bizpalau charpen heldu zaizkigu gogoratzen edo adin aldaketa izpi bat gora behera,22 urte eratzikiz gerotz,hor ditugu zuzen 1831 an,1809 ko,Bernat eta Mari buresoak,Bernat eta Mari edo Jannari bi alabak.Gerogtik sortu zaie Bordazuritarrei Xemartin gene gastena.Bainan eskas ditugu Maria eta Battitta,bi zaharrenak Maria ezkondu zitzaien menturan.Battitta berriz,mediku gaia,eskoletan zitekeen. Badakigu alabainan urte zenbait barne,Bordazuriren semea,Larralde jaun medikua Donibane Lohitzunen "prenatua" izanen dela.

Anartean,Bernat Larralde Bordazuri-k,bere "osaba burjes" fama gainditurik, diruak mundu honetan oro gainditzen omen baitditu, pertsulari omen handia bilduzuen.Bestenaz ere 1830 otik 1848 ra diruaren eta burjesen boterea nagusitu da Parisen Louis Philippe erregearekin:Ongi baino hobeki doakio hazpandar aberatsari handikien lausengatzeko eta ....milikatzeko ofizioa.

Hona beraz 1845 eko uda minean Nemours eko dukea ,erregeren bigarren semea,Euskal Herrira heldu,andere dukesarekin.Baionan dugu Aburtuaren 20 an.Hain zuzen bezperan,Paubeko asicetan jujetuak izan zira 10 bat Ziberotar:Mitikileko Behope delako bat buru,asaldatuak ziren Mauleko merkatuan aintzineko Jondoni Joantan.Bihiaren garestitzea estakuru,desmasia ederrik ba omen zuten eginik.Bazterren

jabaltzeko heldu zitezkeen beraz printzeak gure eskualdeetara("Sentinelle des Pyrénées",Bayonne,21,23 Août 1845,sqq.).

Baionatik Hendaian barna Erufeko itzulia egin zuten frantses printzeek eta gero Dantxaria-tik Kanbora sartu ziren Irailaren 9 eko.Kanboko dantzak eta pilota partidak nahasi omen zituen eguraldi txarrak,bainan gero Lakarreko Harispe jeneralaren jauregira joan baitzire Hasparne,Irisarri eta Donibane Garazin gaindi,Haspar-nen iragaitean entzun zituzten Bernat Bordaxuri pertsalari,eta merkatari famatuaren konplimenduak:

" Heskualdunak iratzar gaiten,bai zuti gazte guziak,
" Gure Printziari emaiteko arribadan choriak.
" Zer plazerra duien Heskual Herriak,
" Printze bat aldian ikustiaz,
" Bere Printzesa maitiarekin herri hautan pasatziaz!
" Orai printze,sarri errege,baitu botere handiak.
" Beszti beraz zuek gaztiak,guziak besta gorritan,
" Alegera elgarrekilan Printziaren choretan!(Bis,bis,bis).

" Gure Jainkoari behar 'tugu orok eskerrak bihurtu,
" Printzek nahi dituztelakotz heskualdunak bisitatu.
" Ez girade behar nihor lotsatu,
" Hoien borondatiak estimatu:
" Gure malurrak ikusirik nahi gaitu sokorritu,
" Gure zoriona berekilan hunat ekarri derauku.
" Beszti beraz guzk gaztiak,.....
"......"

" Printzia pasatzen denian gure mendi handi hautan,
" Behar girade presentatu bakotxa gure bortetan,
" Buketa koloriak orok eskutan,
" Sar dadin Heskualdun bihotzetan.
" Ikusiko du nola garen jeneralian penetan,
" Urrikaldurik heldu zauku herri hauen fagoretan.
" Beszti beraz.....
" ....."

" Gure Printzia orok dugu gure ahalaz choratu,
" Bainan orai nahi ginuke Comte Harispe aipatu:
" Hura behar dugu orok maitatu,
" Zeren harrek gaitu choratu,

" Heskual Herrian holakorik oraino ez da agertu,
" Bere "action"-e loriosez oro ditu merexitu.
" Bezti beraz.....
" ....."

""Oraino aipatuko dute Frantzian Heskual Herria,
" Comte Harispe-k emandako sekulako ohoria:
" Izkiriba daite haren bizia,
" Arki da egia erraitia,
" Guretzat eta ondorekoen ainitz kontsolagarria,
" Oroitzapentzat izanen da Lekarreko jauregia.
" Bezti beraz.....
" ....."

" Comte Garat Lapurtarra da,nahiz Parisen sortüa,
" Haren odolian kausitzen da Heskualdunenabaltzuzia.
" Orai da bakarrik bera bizia,
" Lapurtar guzion gidaria,
" Kredit handien jabe dago Parisen eta gortian,
" Bera berondatez betia Heskual Herrien gainian.
" Bezti beraz.....

("Phare des Pyrénées",Bayonne,nº744,17 Septembre 1845)

1845 eko Irailaren 9 an Bordazurik Hazparnen eman pertsu horiek nola hartu zituen Augustin Chaho batek interesgarri zaigu ikustea;hona ner dion Baionako bere aldizkarian:"A propos de chansons,un improvisteur renommé de Hasparren,Mr Larralde Bordachuri en a composé une en l'honneur du passage de LL.AA.RR..Il est fort heureuxpour notre spirituel confrère en poésie,que la gravité des magistrats en France ne s'abaisse jamais à s'occuper de chansons.....L'improvisation de Mr Larralde Bordachuri n'est point satirique,elle est plaintive et laudative à la fois.....mais il s'y trouve un hémistiche bien hardi:

"Orai printze,sarri errege".

Si la rime est riche,elle n'est point exacte"("ARIEL,Bayonne,nº 50,14 Septembre 1845).Zuzen ari zen gure Ziberotarra, ez baitzen sekulan "errregetu" beihalako printzea,bai eta zuzen ari ere,lausengu guzien artetik zinkurina doia sartzen bazakiela kalgundur pertsulariak,chartzearekin.

Den bezala erraiteko,Bordazuriren kantuen"gatza" aipu baitzuen Hiribarren-ek,aitor dezagun beste Bordazuri galerianoaren pertsuek balinbadute ere gatz eta biper nahikoa,Bordazuri osabaren kantuetan ez dugula aurkitu ez gatzik ez

biper liparrik,baina bai olio eta gozoki gehiegi.Ez gaiten beda harri:zinkurina eta laudorio,nigar eta espantu,bedute maiz holakorik besteen meneko dauden eta heldutasunera heltzekoak diren herrialdeen kantuek.Eta Bordazuri-ren ondotik aurki genezake oraino,Iparraldean ala Hegoaldean,goiko mailetan ala beherekoetan,gure herritar asko,Pariseko ala Madrileko handiki kasta ororen eta Euskal Herriko horien erkumaki piltzarrenen aintzinean ahuspekatu denik.

Horiek oro bait zekizkien Augustin Chaho Bazaburutarrak "Ariel"bere aldizkarian iragarri zuen Hazparneko kantuen ondotik,beste kantu berri bat aterako zuela oraino Bordazurik,"Euskal Gardiaren" ohoretan egitekoa zen bazkarian:"Mr Larralde Bordachuri improvisera un chant nouveau au prochain banquet de la garde vasco-bayonnaise"(ARIEL,nº 51,21 Septembre 1845).

Frantziako Iraultzaren ondotik herri guzietan gobernuak moldatu zuen bere aldeko lagunekin "Nazionearen Gardia","Garde Nationale" deitua.Bestalde,edozein ospakuntzaren ohoretan biltzen zituzten ere,beren arma,besta gorri eta zaldiekin,"Ohorezko Gardia"ko gizonak.Orduko kazeten arabera,Nemours-eko dukearen eta dukesaren ohoretan,Garat kondea eta Harispe kondea buru,bildu zituzten herrela Baionako eta Euskal Herriko "Ohorezko Gardia"-ren zaldizko ederrak;horra zergatik Bordazurik kantatu zuen:

" Gure Printzia partitu da,orok dugu ohoratu,
" Orai behar girade beraz haren Gardiaz mintzatu:
" Baionesak ditu ainitz laudatu,
" Dio,hek direla seinalatu.
" Lapurdiko floria berriz Kontiak deuku manatu:
" Printzia eta populuia,oro ditu satifatu.
" Biba,Biba,gure Kontia!,Senaturreren semia,
" Izan zaite orai bezala Lapurtarren gidaria!(Bis)"

(Coplac Larralde Bordachouri Hasparndarrac,1845-co 7-an 19-an emanic,Hescualdun gardiaren ohoretan.1845,7 kopla)

Bide beretik,ondoko urtean,Madrilen ezkont-laguna harturik,Pariseko Erregeren beste seme bat iragan baitzen Baionan:Montpendier-ko dukea,honi ere beste 9 kopla atera zizkion Bernat Bordazurik.Eta "L'Adour"deitu Baionako kazeta berriak berehala argitaratu zituen(L'ADOUR,Bayonne,30 Octobre 1846).Desterik ere egin zezakeen Bernat Larralde Bordazurik,handik laster 1848 ko Iraultzak ez balu uzkaili Louis Philippe erregearen alkia.Ez dugu jakin orduan erregezale gelditu zen Bordazuri,ala Chaho eta Topet Etxahun eta beste frango bezala errepublikazale agertu zen.Dena dela Imperio berri bat ja sortua zen Parisen,Napoleon III.aren Imperioa(1852) Hazparneko herriko etxean hartu zutelarik Bernat Bordazuri-ren hil berria.Ezen horiko paperek diote:1853 ko Otsailaren 15 an,Hazparne karrikako Eiheraberrian hil izan dela Bernat Larralde,ofizioz ogi bihi saltzale,"blatier",Marie Etcheverry-ren senarra.81 urte zituen(Hazparneko herriko-etxeko heriotze liburua,1850-1860).

3 . - JEAN BAPTISTE LARRALDE BORDAXURI(1804-1870)

Aitortu izan dugu Jean Baptiste Larralde Bordaxuri-ren bataio paperrik ez dygula aurkitu Hazparneko herriko-etxean,ez eta haren hatzik 1804 eko zentsu liburuan,beinan 1809 ko zentsu liburuan agertzen zaigu bere buraso ta haurrideekin, Bordaxuriko egoiliarren erdian,5 urte dituela.

Bestalde Donibane Lohitzuneko herriko-etxean ibili gara heriotze liburuak ikertzen,"Docteur Larralde",Donibaneko mediku ezagunaren berrien ondotik eta hor irakurri dugu:1870 eko Martxoaren 21 ean,Donibane Lohitzunen,Ospitaleko karrikaren 1. ean hil izan dela Jean Baptiste Larralde,jaun medikua,Bernard Larralde eta Marie Dominique Etcheverry-ren semea,Hazparnen sortua.67 urte zituen.

Ez da beraz guretzat ezbaian gelditzerik:Argi dago Donibaneko Larralde medikua,Hazparne Bordaxuri-ko semo zela.Gehiago dena ere,Hiribarrenek zion bezala, Larralde medikua pertsuzale zela gaztedanik,sumatzen dugu:Julio de Urquijo salatzen digu Larralde-ren kantu liburu bat,eskuz idatzia eta guziz aberatsa,erosia zuela (URQUIJO,J.de,Revue Internationale des Etudes Basques,1923,158.orr.).Liburu eder hori ez dugu zorigaitzez aurkitu Donostiako Urquijo-ren liburutegian.Urquijo-ren esku-izkribuon kondua ez omen dute oraino(?) egina.Baina norbaitek noizpait Larralde-ren kantu liburua eskura baleza,euskal literaturaren historiak menturaz asko ira baz lezake.

Anartean bagaude gure buruari galdeka,zergatik ote, Larralde medikuak berak ez digun behinere,bere Bordaxuri-tar etorkia agertu.

Bordaxurian sortu edo bederen bizi izana gatik,gero Elheraberrirat etorria zela bere etxekoekin,bazuen Battitta Larraldek aski estakuru "Bordaxuri" izena Hazparnen uzteko,Donibanera joan zelarik.Bainan bestalde - ala bere lehen kusi galeri anoaren gatik,ala bere aita dirudun eta diruzalearen gatik,ez genekike -"Bordaxuri izen hori bera jasangaitz zitzaiola Battitta Larralderi,beragu beldurra.

Dena dela, Larralde medikuak ez du bere burua pertsulari bezala agertzen Hazparneko aita Larralde Bordaxuri hil arte.Urruñako Euskal Festetan,1856 eko Irailaren 9 an,du partehartzen lehen aldikotz pertsu lehiaketan.Partehartzen eta lehen prima irabazten:Makila zilarreztatua eta untza urrea,Luis Luzien Bonaparte printze euskaltzale eta inperadorearen kusi lehenak eskuratuko diona.Hona saristatu zituzten koplak:

HERRIKO BESTA

Airea:Hau da Frantses histuendako alegrantzia handia.

" Herriko besta denaz geroz,aurten kantuen suieta,
" Nik ere zerbait erran nahi dezagun denbora pasa.
" Ez naiz,sobra dakit,sasoina gan da,
" Gehiago gazte;bai hala da.

" Bainan egun huntan zaharrik nihon kausitzen ote da?
" Ez,tanburren zirolen soinuz guziek airosten gira.
" Goazen beraz,zahar gazteak,goazen herriko plazara!
" Atseginez hain aberats den egun huntaz gozatzera."

" Egun guzia familiak dira,milla gisaz barreiatzen,
" Anaia arreba josienak elkarren ganik urruntzen;
" Amak nigarretan umeak deitzen,
" Harren botza nihork ez aditzen.
" Bainan Herriko Bestarekin guziak etxerat biltzen,
" Beren buruso maite hoiek amultsuki besarkatzen.
" Egun eder,egun gozoa,atseginez gainditua,
" Berantegi aditu duzu gure bihotzen oihua!"

" Gizon gazte,gorputz lerdena,hunat gerriko gorria!
" Eta zuk,neskatxa kriketa,laster kasa soin zuria!
" Goizetik denbora dago garbia,
" Nihon hedoi bat ez,zer loria!
" Jadan urrundik ikusten dut plaza jendez estalia;
" Lot beraz zuen nekilleri,lagunak! Gaiten abia!
" Goazen beraz,zahar gazteak,goazen herriko plazara!
" Atseginez hain aberats den egun huntaz gozatzera.

" Plazarat heldu garenean,zer zaiku kolpez agertzen?
" Sei herronketan gazteria;zaharrak ez ziren azken;
" Zortzi pillotari dira jokatzen,
" Begiak dituste lilluratzen,
" Nahiz oraino bere botza nihork ez duen altxatzen,
" Segur naiz bakotxak gogoz bederen duela kantatzen:
" Egun eder,egun gozoa,atseginez gainditua,
" Berantegi aditu duzu gure bihotzen oihua!

""Aurten Urrufia lehen dugu,besta guzien nagusi:
" Ikusten dut bihebalere kasik frogarik ez aski,
" Zein goradanik den Printze bat jautsi,
" Gurekin egungo kide jarri.
" Eskaldunak! ez da sekulan Jaun hori behar ahantzi.
" Ez orai bakarrik bihotzez,kanta dezagun goreki:
" Biba! Biba,gure Printzea! hanbat talenduz betea,
" Talenduen berdina dago xoilki zure bertutea."

" Nahiz milla gauza nintuzken oraino nik erraiteko,
" Printzeaz mintzatuz geroztik,guziak litezke flako.
" Lurrera zerutik ez erortzeko,
" Muga da nere usten ixiltzeko.
" Aski beraz,bestalierrak;orai etxerat gateko
" Amarra zuen eskarpinak,ama guri beira dago.
" Goazen,goazen,goazen gibelat,bainan helcu den urtean
" Aurki gaiten,nere lagunak,aurtengo toki berean."

(LE MESSAGER DE BAYONNE,15 Novembre 1856)

Bizpalau oharpen bagenituzke Dattitta Larraldo Bordazuri-ren lehen kopla andana horretaz egiteko.Eta lehenik,kantuaren airea ez dugula ezagutzen,bainan emanak diren hitzetarik sumatzen dugu Frantziako Iraultza Nagusiaren ildotik doala delako doinua.

Euskararen aldetik,"milla","pillota","makilla","kexa","gan","gateko" eta holako lapurtar porrotxa zenbait gora behera,baxenabartar moldeak eta ereduak dira nagusi.Hasparneko berezitasun bat edo besteekin,hala nola "nintuzken".

Aitarenari konparatuz,semearen hiztegiak,idazle eskolatuagoarena den bezala "garbizale" dirudi.Pertsuaren egitura aldiz,tinkoago eta aberatsago.Perpausa bera halere lasai eta laxo dator hazpandar batzuen elasturiak kutsatu balu bezala.

Oroz gainetik aitortu behar dugu,kantu horren azken bi koplak irakurri-ta, semeak ez diola aitari gorrik bandi-mandien lausengatzen hasten delarik.Atzo Errege-ren semeei aita:"Biba! ta Biba!" ari zen bezala-bezala,orai berdin ari zaigu semea,Enperadorearen kumeari:"Biba! ta Biba!-ka".Beharrik beste hiderik hartu baitzuen Larralde medikuak ondoko urtetan!

1857 ko Bestetara ez zen agertu Donibaneko mediku pertsularia.1858 an aipamen bat eman zioten "Eskualduna" deiturik bidali zuen kantuari.1859 an lehen prima irabazi zuen berriz Dattitta Larraldek,"Lo,lo,nere maitea!" bere sebaska kantu berriarekin.Zarpi kopla dauzka,"Ene izar maitea!"-ren airearekin emaiteko ontuak.Ez ditugu hemen ezarriko,"eskual kantu liburu gehienetan sartuak bait dira" Ikus Kantu Konta Kantore,245.orr..Herriak ontzat hartu dituela seinale dela ere Etxahun Irurik,geroztik,ontu dizkigun:"Lo badi ainguria!",eta holako zenbait koplaren grazia gorea aurkitzen diegu pertsu horiei,guhaurek.

1860 an "Xori ohatzea" aurkeztu zuen Larralde medikuak"Abbadia-ren lehiketa"-ra eta honelako komentarioa egin zuen Baionan Duvoisin kapitainak:"Mr Larralde,couronné à deux précédents concours,nous a donné cette année une jolie pièce intitulée:"Chori ohatzea":

" Adi zazu nigarrez,xori gaixo hori,
" Umeak gal beldurrez,oihuz dago zuri...".

Les traits irisés de la plus aimable poésie se trouvent répandus.On y rencontre des réflexions trop graves peut-être..."(C.DUVOISIN,Le Courrier de Bayonne,23 Septembre I860).Aipamen horrekin utzi baitzuten beraz jujeek Larralde jaunaren olerkia,Duvoisin-ek berriz ere argitu nahi izan zuen bere eta beren lagunen xedea:

"Le concours de poésie basque veut rester pur et en dehors des passions malsaines.Relever l'art chez nous compatriotes,l'encourager,l'anoblir,le perfectionner tel est le but que se sont proposés les honorables fondateurs du concours.Imprimer au sentiment national une vive impulsion dans la sphère du beau est une mission vraiment patriotique méritant l'appui chaleureux de tous les Basques"(C.DUVOISIN,Le Courrier de Bayonne,26 Septembre I860).

Nork ez zituen horrelako xede ederrak onartuko? Eta geroxago,I874 ean Sarako jujeek politikaren sukar gaiztoak beren artean sartzera utzi zutenean,aita Aranak Bizkaietik bidalitako pertsu berean saristatzen zituztela:

" Ea bada mutillak,jaiki gogorturik,
" Fusilak bayonetak hartu berehalatik,
" Jaungoikua ta Marija doguz gure aldetik,
" Europa kontra izanik ez dogu beldurrik...."

Badakigu ser zalapartak sortu ziren:Icus,GUILHEAU,M.,L'Avenir des Pyrénées"Concours de poésie basque à Sare",Bayonne,I9 Septembre I874.

Larralde jaun medikuaren pertsuekin ez zen bada holako lanjerrik:Erromantikoen bide sentimentaletatik zabiltzan apdura.Bizkitartean I862 ko lehiaketan jujeek baztertu zuten oraino haren "Brioleta":Donibaneko medikuaren kantu horren boleja beste askoren - bereziki Elizanbururen "Ikusten duzu goizean"-en - aintzinean ezarri zuten Elizanburu-ren "Apexa eta Lorea"(Kantu Kanta Kantore,I9,33,I50. orr.).

I863an oerëno,Urruñako bestetan,bigarren lerroan uzten dute Bettitta Larraldek igorri duen "Koriñoa kaiolan":

" Zertako ni kaiolan,zer eginik gaizki?
"Ez ote dut beda izan bihozminik agki?
" Airetan ibiltzeko,Jaunaren dohainak
" Eta ez preso egoteko ditut nik hegalak."

" Beharbada nigarrez,barur atzo damik,
" Ene haurrek ni galdez daude goseturik.
" Laster hetaratzeko,idek beraz bortak!
" Maiz baien bazkatzeko ditut nik hegalak."

" Alargun bat naizela ez dautzuet erran,
" Helas,hil zitzaitala laguna segadan.
" Harren mina arintzeko eta eginbideak
" Bienak betetzeko ditut nik hegalak."

" Iragan arratsean egin dut nik aneta,
" Umez aipu denean anak zer ez zinets?,
" Ohetzetik burbilako zabiltzala etsaiak.
" Lanjerrei aintzinatzeko ditut nik hegalak."

" Beina berantegi den hago beldurturik
" Nihon ez dut aditzen auhen minik baizik
" Ez ez da dudatzeko,galdu ditut haurrak.
" Orai nik deungetako ez ditut hegalak."

" Dolug errebel,Jaunа,hasi naiz mintzatzen
" Nere azken orena hari da burbiltzen.
" Zerurat airatzeko,umentzat alferrak,
" Zaizkit baliatuko,egian! hegalak."

(BARRUÑAKUELJZA BESTA,Coplarien gudua,Bayonne 1863).

Lehen aldikoei komparatu-ta,pertsu hauek orakusten dute,gure ustez,pertsularia bere ofizioaz ongi jabetu dela,bainan ez ote du oraino haren doinuak halako mindulin,nigarti aire hat begiratzen? Non dire beda Dordazuritar kusiaren zirri zorrotz eta oihu saminak?

1864 ean azkenean,bere lore usain eta zori kantu guziak bazterrera utzi zituen Larralde mediku,berak bizi zuen bizitzea gogoratu zitzaion eta atera zuen " Mutil Zaharra",bere kantu hoberena, Saroko Bestetan untza urrea eta makila zilarreztatua,hots lehen prima,berriz ereman zuena:

" Bakarrik bizitzeaz unhatua franko,
" Xede zerbait banuen lagun bat hartzeko,
" Bainan orai andreak zembat ez du behar!
" Ez,ez, nahiago dut egon mutil zahar."

Eta horrela heldu dira hameka kopla,zuzen eta zorrotz.Ez ditugu hemen ezarriko, berez aski ezagunak bait dira(Dr A.Goyeneche,Eskualdun Kanteria,Bayonne Lasserre, 1894).Arrakasta gehiegi zutelakoan pertsu horiek,ez ote dituzten zenbaitek beren kantu liburuetarik baztertu,bagaude ere.Dena dela,Larralde mediku/ donadoari lagster erantzuna bota zion Espeletatik Josep David(1829-1910) mediku sentonak:

" .....
" Zefra zagun diona:"Gauden mutil zahar!"
" Jaunak,haren gainean etsenplurik ez har!
" Aberats bolin bada,dena da paper tzar,
" Eta beharra bada,segur dena piltzar."

" Bizios betetzen da,gizon mutxurdina,
" Tabakoz usainduriik,sudurra zikina.
" Sosa du bere jainko,elkor tzar egina,
" Edo dena tripan du bere atsegina....."
(MEHOR,Matil nafarrari."Gure Herria",1922,164-166.orr.).

1865 eko urte boretan Battitta Larraldek igorri zuen aken kantu bat, "Tria ezagutzaz betea errenifoletarentzat" deitzen zuena.Jujeek eman zioten ohorezko saria.Hartze zuen gaino medikuak:Es zen alabainan ainitz zahartu eta,erran dugun bezala,1870 eko Martxoaren 21 ean hil zen Donibane Lohitzunen,67 urtetan, Battitta Larralde medikua,Hasparneko Bordazuritar hirugarren pertsularia.

Haspandarrek oroit arte ohoratu ditugu oroz gainetik nonbaitik etorri arrotzak,edo nolanpait diru puska bat egina zutenak;edo pilotari fama zerbait izan dutenak.Noizpait menturaz ohartuko gara beste haspandar aipagarririk ere izan dugula:Elbiar-tarren fama ez bodute bilán beren bizian,beren herritarren oroipena hartze dute gure ustez,Garat-Pikagarri eta Londaitzbehere errehorak,Manex Hiriart-Urruty Joanegederraenekoak eta Piarres Broussain Barrendegikoak eta Josep Mendiague Guarda-semeak eta Clément Mathieu apezpikuak eta Gilen Cazenave kantariak eta beste askok.Oroituko garenean agian bilduko ditugu orduan liburutto batean Haspameko hiru Bordazuriterren kopla guziak.Anartean Euskal literaturaren alorrean ildoa idoki digun erakasleari eskaintzen diokiogu lerro mutur hauek(P.LAFITTE Le Basque et la littérature d'expression basque,en Labourd,Basse-Navarre et Soule, Bayonne,1941,51.orr.).

Piarres Larritton.

FSC
MIXTO
FSC® C001636